

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Jendaurrean jartzea urez hornitzeko, zaborrak biltzeko eta estolderia zerbitzuen tasak eta uraren kanonak, bai eta horiek ordaindu behar dituztenen eroldak ere

Behin onarturik urez hornitzeko, zaborrak biltzeko eta estolderiaren tasen eta uraren kanonaren zerga eroldak, 2018ko bigarren seihilekoari dagozkionak, jendaurrean jartzen dira erakusgai orain, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten oharrak edo alegazioak egin ahal izan ditzaten 15 egun balioduneko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onartutzat joko da, eta kobratzeko aldia hasiko da.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2019ko martxoaren 8tik maiatzaren 8ra.

B) Betearazte aldia: 2019ko maiatzaren 9tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Elciegoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Elciego, 2019ko urtarrilaren 28a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE